

8. HERRITARREN PARTAIDETZA, BERDINTASUNA ETA GIZARTEA AHALDUNTZEA

SARRERA

Herritarren Partaidetzako, Berdintasuneko eta Gizarte Ahalduentzeko Alorrek gobernu-jardunaren bi ildo funtsezko bultzatzen ditu: Berdintasuna eta Partaidetza. Kudeaketaren beste alderdi batzuk izango dira Udalaren eta herritarren arteko komunikazio-bideak eta harreman-zubiak ezartzea; zeharkako politikak, Administrazio barrukoak zein kanpokoak, abiatzea, hirian genero-berdintasuna lortze aldera; eta gazteen, adinekoen, dibertsitatearen eta migratzaileen, LGBTQI kolektiboaren eta beste gizarte-sektore batzuen aldeko politikak abian jartzea.

a) Herritarren partaidetza

- Hiriko elkarte eta entitateen erregistroa.
- Herritarren entitateendako diru-laguntzen kudeaketa.
- Elkarleen Etxearen, Calderería kaleko erabilera anitzeko aretoaren eta partaidetzako gune kogestionatu zein autogestionatuen kudeaketa.
- Zeharkako partaidetzarako barne-guneak sustatzea udal-alorretan, hala unean-unean *ad hoc* sortutako mekanismoekin nola koordinazio-mahai tekniko bat sortuta, Udalean zein Udalaz gaindi herritarren partaidetzari lotutako gaietan lan egiten duten teknikariei zuzenduak.
- Partaidetza-prozesu jakin eta zehatzak sustatu eta dinamizatzea, lurraldekoak zein sektorialak, halako eran non haiek aukera bihurtuko baitira behetik abiarazteko Iruñeko Udalaren Herritarren Partaidetzako Erregelamenduan aurreikusitako partaidetza-organoak: auzo-kontseiluak, kontseilu sektorialak eta Hiriko Gizarte Kontseilua.
- Udal-kontseiluak sortzea, zenbait adin-talde eta gizarte-sektoretakoak –haurrak, gazteak, adinekoak eta berdintasuna–, haien arazoak berariaz lantzeko, eta sor daitezkeen bestelako kontseiluak sustatu, babestu edo koordinatzea, beste zenbait gai jorratze aldera (dibertsitate funtzionalak, auditoretza herritarra, ingurumena eta mugikortasuna, kultura, euskara, etab.).
- Auzo-kontseiluak sortzea auzo bakoitzaren berezitasunei erreparaturik eta dinamizazio-plan bereziak garatuta alde geldoenetan.
- Hiriko Gizarte Kontseilua sortzea.
- Aurrekontu partizipatiboak sustatzea.
- Behar diren aldaketak egitea arauetan, partaidetza modu malguan hedatze aldera maila guztietan.
- Online partaidetza eta herri-galdeketa sustatu eta koordinatzea.

- Laguntza ematea herritar guztiei irekitako ekitaldien bitartez herritarren partaidetza sustatzen duten elkarteei.
- Boluntariora sustatzeko programak indartu eta bultzatzea.
- Elkarteei prestakuntza ematea teknologia berriei, kontabilitateari, diru-laguntzen bilaketari eta abarri buruzko ikastaroen bitartez.
- Partaidetzarako tokiko behatoki bat sustatzea, edo kontseilu sektorial bat, partaidetzaren inguruko eztabaida- eta koordinazio-gune tekniko gisara, non presentzia izanen baitute erakundeak, gizarte zibilak eta ezagutzaren esparruak.
- Ahalduntze- eta partaidetza-eskola bat sustatzea, politikariak, funtzionarioak, gizarte zibila, herritar-kolektiboak zein -entitateak eta sektore soziokomunitarioko profesionalak baliabidez hornitu eta gaitze aldera.

b) Berdintasuna

- Partaidetza-prozesu baten dinamizazioa, Iruñeko Udalaren Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako III. Plana diseinatze aldera.
- Plan horren jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoak diseinatzea.
- Ekintza positiboko berariazko neurriak diseinatu eta sustatzea.
- Sustapen-lana genero-ikuspegia txertatzeko zeinak bere administrazioaren politika, programa eta ekintza guztietan, maila eta fase guztietan.
- Aholkularitza eta laguntza ematea zeinek bere administrazioko sailei eta haren mendeandauden gainerako erakunde eta organoei emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz.
- Dagokion lurralde-eremuan bizi diren herritarrak sentsibilizatzea emakumeen eta gizonen ezberdintasun-egoeraz eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriez.
- Proposamenak eta sustapen-lana egitea zeinek bere administrazioan berariazko programak edo zerbitzuak egokitzeko eta sortzeko, bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek oinarritzko gizarte-eskubideak izango dituztela bermatze aldera.
- Proposamenak eta sustapen-lana egitea baliabide eta zerbitzu soziokomunitarioak sortu eta egokitzeko, emakumeei eta gizonei bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzen laguntze aldera.
- Norberaren lurralde-eremuan gertatzen diren bereizkeria-egoerak hautematea, eta egoera horiek errotik kentzeko neurriak diseinatzea eta sustatzea.
- Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundeon xedeek edo eginkizunek emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute.
- Administrazioari atxikitako langileek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan dituzten prestakuntza-beharrianak diagnostikatzea, eta proposatzea kasu bakoitzean

behar den prestakuntza-mota zein prestakuntza hori eskuratzeko orduan aplikatu beharreko irizpideak eta lehentasunak.

- Solaskidetza emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eskumenak dituzten erakunde, organo eta unitateekin, eta, bereziki, Nafarroako Berdintasunerako Institutuarekin.
- Compañía kaleko zentroaren kudeaketa eta dinamizazioa.
- Laguntza banatzea berdintasuna sustatzen duten entitateei, haien iraupena eta funtzionamendu egokia bermatze aldera (adibidez, Emakumearen Liburutegiari).

c) Gizarte Ahalduntzea:

Gazteria:

- Gaztediaren Etxea mantentzea eta sustatzea (ikastaroak, aholkularitza, zibergela, etab.)
- Iruña Gaztea III. Planaren erredakzioa eta garapena.
- Gazteei zuzendutako programak garatzea, batik bat, haien ahalduntzea sustatzen ahal dutenak.
- Babesa, gazteek garatutako ekimenei.
- Entitate eta elkarteek gazteei zuzenduta garatzen dituzten jardueren sustapena (diru-laguntzak).
- Sinergiak sortzea partaidetza-prozesuetan, dela unean unekoetan, dela sektorialetan.
- Gazteriaren Tokiko Kontseilua sortzea.

Adinekoak:

- Adinekoei zuzendutako programak garatzea, batik bat, haien ahalduntzea sustatzen ahal dutenak.
- Sinergiak sortzea partaidetza-prozesuetan, –unean unekoetan eta lurraldekoetan– eta Adinekoen Kontseilua suspertzea.

Kultur aniztasuna:

- Migratzaileei zein migratzaile ez direnei zuzendutako programak garatzea, batik bat, haien ahalduntzea sustatzen ahal dutenak.
- Sinergiak sortzea partaidetza-prozesuetan, dela unean unekoetan dela lurraldekoetan.
- Gai honi dagokion kontseilu sektoriala eratzea.

LGTBQI

- LGTBQI kolektiboei –lesbiana, gay, transexual, bisexual, queer eta sexuartekoen kolektiboei– zuzendutako programak garatzea, batik bat, haien ahalduntzea sustatzen ahal dutenak.
- Sinergiak sortzea partaidetza-prozesuetan, dela unean unekoetan dela lurraldekoetan.

HERRITARREN PARTAIDETZA

Prestakuntza

Partaidetza soziala errazteko xedez, Herritarren Partaidetzako, Berdintasuneko eta Gizartea Ahalduntzeko Alorrak prestakuntza-gunea ireki du herritarrek elkartzeko eta gogoeta egiteko 2016ko azken hiruhilekoan hasi ziren doako ikastaroak abian jarrita. Ikastaro horiek bide eman zioten 2017ko lehen hiruhilekoan APUE Ahalduntze eta Partaidetzako Udal Eskolari, prestakuntza-eskaintza zabal eta askotarikoarekin.

2016an egindako prestakuntzak, elkarteei eta herritar guztiei zuzendutakoak, hiru ikastaro ditu: wordpress-ekin web-orriak diseinatu eta argitaratzeari buruzkoa, feminismoen eskola ikastaroa eta irabazi asmorik gabeko erakundeetako giza baliabide eta boluntarioen araubideari buruzkoa. 58 pertsonari eman zitzairen prestakuntza, ehundik gora aurreinskripzio jaso ziren arren.

Deialdia, partaidetzaren esparruko irabazi-asmorik gabeko herritarren elkarte eta kolektiboei diru-laguntzak emateko

2016an, 113 elkarteek 445.000 euro jaso zituzten herritarren partaidetzaren esparruko laguntza-deialdiaren bidez. Emandako laguntzen zenbatekoa 27.200 euro handitu da aurreko urtean emandakoarekin alderatuta. Laguntza horien helburua dinamizazio eta partaidetza soziala sustatzea eta ehun soziala indartzea da proiektuak eta jarduerak gauzatuz. 119 proiektu finantzatu dira. Deialdiak hiru epigrafe berezitari diru-laguntza ematea xedatu du eta zenbateko desberdinak bideratu dira diru-laguntza bakoitzerako:

- A epigrafea: 50.000 euro. 19 proiektu diruz lagunduta:
 - Auzo-elkartek, kultur elkarteek, jai-batzordeek eta kultur koordinakundeek aurkeztutako proiektuak auzoetako festak, jai herrikoiak zein izaera komunitarioko ekitaldi soziokulturalak antolatzeak. Hori guztia auzoetan sareak eta gizarte-loturak eratzeak eta gizarte-kohesioa eta partaidetzako dinamikak bultzatzeko, kultura

herrikoiaaren edo hurbileko kulturaren sustapena, sorkuntza eta hedapena eginez, herrialdeko gizarte-sarearen parte-hartzetik abiatuta eta herritarrekin harremanetan.

- B epigrafea: 345.000 euro. 81 proiektu diruz lagunduta:
 - Aisialdiaren eta denbora librearen arloan (gizarte eta kulturakoa, gizarte eta hezkuntzakoa eta gizarte eta komunitatekoa), herritarren bizi kalitatea eta ongizatea sustatzearen alde lan egiten duten entitate edo erakundeek aurkeztutako proiektuak, bereziki helduekin eta adineko pertsonekin egitekoak. Kontuan hartuko dira helduekin eta adinekoekin egitekoak diren unean-uneko jarduerak, baldin eta elkarteak haur eta gazteen esparrukoa izanda jarduera horiek egitean herritar multzo horren gainean eragin positiboa badute.
 - Gizarte-partaidetza, herritar aktiboak eta boluntariotza-lana, gizarte ehunaren koordinazioa eta sare-lana, lurraldeko bizilagun, talde eta elkarten arteko informazioa eta komunikazioa, eta hedapena eta sentsibilizazioa sustatuko dituzten proiektuak dira. Horretarako, martxan jarriko dituzte ekintza berritzaileak, proiektuei aplikatutako garapen teknologia eta ehun sozialaren bidez gizartearen eraldatzeko jardunbide egokiak. Horrez gain, herritar guztientzat zabalik egon beharko dute, eta partaidetza bultzatu.
- C epigrafea: 50.000 euro. 19 proiektu diruz lagunduta:
 - Kultura herrikoia sustatzeko, sortzeko eta hedatzeko proiektu eta jarduerak, Nafarroaren eta eskualdeko beste komunitateen kultur aniztasunaren ordezkari diren entitateek aurkeztutako, hori dena topaketa kulturala eta elkarbizitza lortzeko aisialdiaren eta denbora librearen esparruan (gizarte eta kulturaren, gizarte eta hezkuntzan eta gizarte eta komunitatean), lurraldeko gizarte-ehunaren parte-hartzetik abiatuta eta herritar guztiei irekia.
 - Partaidetza-, harrera-, sentsibilizazio-, sustapen-, sormen- eta hedapen-proiektuak eta -jarduerak, kultura- eta jatorri-aniztasuna sustatzekoak eta elkarbizitza, elkarbizitza eta ezberdintasunaren errespeturako estrategia abiatzekoak, askotariko jatorriko pertsona eta kolektiboen parte-hartzea eta ahalduz bultzatuz udalerriaren bizitzan.

Auzo-foroak

2016an herritarrekin bilerak egiteari ekin zitzaion eta izen hau zuten: Auzo-foroak. Iruñeko auzoetako bizilagunen arazoak, premiak eta proposamenak zuzenean ezagutzea da helburua. Guztira hamahiru Auzo-foro egiten dira, auzo bakoitzari dagokion zinegotziaren presentziarekin. Zinegotziak aurkeztu dituen eremu horretarako Udala egiten ari den edo proiektatuta dituen proposamenak eta neurriak. Herritarrek, gainera, hitza hartzen dute beraien auzoak zer behar

duen azaltzeko eta eskatzeko. Foroek familia adiskidetzeko zerbitzua dute auzoko forora joan nahi duten familiak artatzeko, familia horiek seme-alabak ludoteka zerbitzuan utz ditzaten. Zerbitzua Prebentziozko Arreta Komunitarioko Zerbitzuak (PAKZ) ematen du foroa egiten den lekuko gela edo barrunbe osagarrietan.

Auzoa	Zinegotzia	Data	Tokia
Arrosadia - Santa Maria Errege – Milagrosa - Azpilagaña	Eduñe Eguino Javier Leoz	2016/02/18	Milagrosako Civivoxa
Txantrea	José Abaurrea	2016/02/23	Txantreako liburutegia
Alde Zaharra	Alberto Labarga	2016/03/01	Kondestable Civivoxa
Mendillorri	Laura Berro	2016/03/08	Mendillorriko Civivoxa
Sanduzelai	Aritz Romeo	2016/03/15	San Jorgeko Civivoxa
Donibane – Mendebaldea – Ermitagaña	Esther Cremaes	2016/03/22	José M ^a Huarte I.P.
Arrotxapea	Patricia Perales	2016/04/05	Juslarrotxa Civivoxa
Lezkairu	Javier Leoz	2016/04/12	Milagrosako Civivoxa
Etxabakoitz	Armando Cuenca	2016/04/19	Nicasio Landa IP
Iturrama	Iñaki Cabasés	2016/04/26	Iturramako Civivoxa
Zabalguneak	Itziar Gómez	2016/05/03	Zabalguneako Civivoxa
Erripagaña – Beloso – Bidezar	Maidar Beloki	2016/05/10	Elorri IP
Buztintxuri	Mikel Armendáriz	2016/05/17	Buztintxuri IP

Foroek 90 lagunekoa asistentzia izan zuten batez beste, eta guztira 1.170 pertsonak hartu zuten parte. Foro guztiak zuzenean eskaini ziren, *streaming* bidez YouTuben, bertara joan ezin duten pertsonen parte hartu ahal izateko eta herritarrek planteatutako eskaerak jasotzeko orduan gardentasun-tresna izateko. Foro guztien material grabatua dago Iruñeko Udalaren web-orrian.

Bilera horietan, herritar aktibo gisa, honako gai hauetan parte hartzeko interesa duten pertsonen inskripzio-fitxak jasotzen dira: auzoko partaidetza-guneak; udal-alorrekin lotura duten partaidetza-guneak; biztanle-sektoreekin (adinekoak, gazteak, haurrak) zerikusia duten partaidetza-guneak; askotariko gaiekin zerikusia duten partaidetza-guneak (aniztasun funtzionala / intelektuala / sentzoriala; aniztasun kulturala; LGTBQI; Berdintasuna). 359 pertsonak eman zuten izena herritar aktibo gisa.

Elkarteen Etxea vs Partaidetzarako Informazio eta Baliabide Zerbitzua

Elkarteen Etxeak, 2004an San Gregorio kaleko 28an ireki zenak, ateak itxi zituen ekainaren 30ean. Orain, 'Partaidetzarako Informazio eta Baliabide Zerbitzua' du izena, eta Kondestable civivoxen bigarren solairuan artatuko du jendea, etorkizuneko Partaidetza Zentro eta Lankidetzak Zentro – Gunean. Baliabide horren helburua elkarteei kudeaketa hobetzen laguntzea da, baliabide teknikoak eta prestakuntzakoak eta aholkularitza tekniko eta juridikoa eskainiz.

Urteko lehen sei hilekoan 3.003 arreta-zerbitzu (aurrez aurre, telefono bidez edo posta elektroniko bidez) egin zitzaizkien 369 elkarteri. Kontsulten % 70 emakumeek egindakoak izan ziren. San Gregorioko aholkularitza juridikoak, urtariletik ekainera bitartean astean hiru ordu

eskainita, 207 arta eman zituen, eta bi ikastaro egin ziren (24 prestakuntza-ordu guztira), dirulaguntzen justifikazio eta aurkezpen arloan eta kudeaketa arloan.

Urriaren 3an martxan jarri zen aholkularitza juridikoko zerbitzua Udaleko Herritarren Partaidetza Zentroan, partaidetza- eta asoziazionismo-gaietan informazioa, orientazioa eta aholkularitza eskaintzeko gai horretan interesa duten irabazi asmorik gabeko erakundeei, kolektiboei eta herritarrei, ekainera arte Elkarteen Etxean egin ohi zen bezala. Zerbitzua doakoa da eta astean 12 orduz egoten da jendearentzat irekita alde zuzeneko aurreko hitzordu bidez, aurrez aurre Kondestablearen Jauregiko bulegoetan, 948 420 266 telefonoaren bidez edo helbide elektroniko honen bidez: asesoria.participacion@pamplona.es

Zerbitzu aktiboko bederatzi hiletan 412 kontsulta eta hiru prestakuntza-ikastaro egin ziren. Udalaren web-orria eguneratzeko ere aprobetxatu da. Udalaren web-orrian jasotzen da Nafarroako Gobernuak Elkarteen Erregistroan elkarte bat eratu eta inskribatzeko behar diren agiri guztiak.

PARTAIDETZA-PROZESUAK

TXANTREA HEGOALDEKO PARKEAREN DISEINUA

2002. urtean, Iruñeko Udal Plana behin betiko onetsi zenean, Txantreako urbanizazioko hegoaldeko ertza bizitegi-eremu batekin osatzea erabaki zen.

Proiektu horrek 500 etxebizitza baino gehiago (% 17 BOE) eta berdegune handi bat eraikitzea aurreikusten zuen. Parkearen diseinua herritarren partaidetzari irekita zegoen. Parkea hartuko zuen eremuan egin ziren jardunaldi eta bisita gidatuen inguruan egituratu zen partaidetza. Zer egin nahi zen jakiteko eta ehun sozialak diseinurako bere kezka, iradokizunak eta proposamenak aurkezteko balio zuten. Lehen fasean, taldeko lan-saioen ondorioei, auzoko gako-pertsona eta -kolektiboei eta talde interesdunei egin zitzaizkien hogeita hamar bat elkarrizketa sakon gehitu zitzaizkien. Prozesu osoa publikoki hedatuko zen: prozesuaren argibideen eta emaitzen berri eman zen auzoan kokatu ziren informazio-panelen bidez eta Udaleko webgunean. 1.500 inguru jaso ziren, eta landu egin ziren lehiaketan parte hartzen duten enpresek euren aurreproiektuetan txerta ditzaten zitzaten..

Proiektuaren bigarren fasea 2017an garatzekoa da. Lehiaketan jasotako proposamenetatik hiru eta bost artean hautatu ziren, eta horiek berriz aztertu ziren partaidetza-prozesu baten bidez, bizilagunek haien gaineko ikuspegiak eta iradokizunak egin zitzaizkien. Bigarren partaidetza-prozesu horren amaierako emaitzak helarazi zitzaizkien hautatutako taldeei, proiektu-lehiaketako azken proposamenetan txertatu zitzaizkien.

ALDE ZAHARRA ARIAN-ARIAN

‘Alde Zaharra arian-arian’ partaidetza-prozesua martxotik azarora bitartean egin zen Alde Zaharreko mugikortasuna aztertzeko. Prozesua bost fasetan egituratuta eta lau printzipiotan oinarrituta zegoen. Lau printzipio horiek lau lan-ardatz eragin zituzten: Alde Zaharrean oinezkoen lehentasuna ematea eta motordun ibilgailuen sarbidea eta trafikoa murriztea; auzorainoko sarbidea eta mugikortasuna erraztea; zamalanak arautzea; eta oinezkoen eta bizikleten bizikidetza.

Prozesua eta egin beharreko lanak prestatzeko lehen fasearen ondoren, herritarren 782 proposamen jaso ziren ezarritako partaidetza-kanalen bidez: auzoan jarritako postontziak, dinamika parte-hartzaileak edo web-orri hauek: www.loviejoosemueva.net (gaztelaniaz) edo www.arianarian.net (euskaraz). Prozesuko beste bi faseak (4.a, Udalaren proposamen teknikoari dagokiona, eta 5.a, inplementazio esperimentalarena), udal-teknikarien analisiaren baitan daude. Teknikariek erabakiko dute proposamen ez-lotesle horietatik zein gauzatuko ziren azkenean.

Lehen ardatzean, oinezkoari lehentasuna eman eta Alde Zaharrean motordun ibilgailuen sarbidea eta trafikoa murriztekoan, beste neurri batzuen artean, sarrerako eta irteerako kameren bidez eta bide-motari, baimendutako abiadurari edo sarbidea mugatua edo mugatu gabea izateari buruzko datuekin haiek seinaleztatuz kontrolatzea proposatu zen. Bigarren ardatzak Alde Zaharrerako sarbide- eta mugikortasun-erraztasunei buruzko proposamenak jaso zituen, hain zuzen ere, garraio publiko, aparkaleku eta antzeko kontuetan, esaterako, Navas de Tolosara hiri-garraioaren geldialdiak hurbiltzea edo Alde Zaharreraino bizikleta-errei sare perimetrala egitea.

3. ardatzean, Alde Zaharreko zamalanak arautzekoan, zamalanetarako egonaldia ez mugatzea, zona horietan aparkatzen duten bizilagun eta gremioen denbora kontrolatzea, kendutako zamalan-eremuak berreskuratzea, esaterako, Zitadela kalekoa, edo Gaztelu plazan berriak jartzea proposatu zen. Azkenik, 4. ardatza, oinezko eta bizikleten arteko bizikidetza jorratzen zuena, bizikletaz ibiltzen direnentzat arau eta erregelamendu argiak ezartzearen eta kontzientziazio-kanpainak egitearen aldekoa izan zen.

PLAZARA! REDIN ETA CRUZATARREN JAUREGIAREN ERABILERAK

Iruñeko Udalak abian jarri zuen 2016an Plazara! partaidetza-prozesuaren lehen fasea Redín y Cruzatarren jauregiaren guneak eta erabilerak definitzeko, gaur egun jendearentzat irekita dagoen zentro komunitario sozial eta kultural berri bat jartze aldera.

Gizarte eta kultur, gizarte eta hezkuntza eta gizarte eta komunitate izaera duen Udalaren ekipamendu hau etorkizunean nola izango den diseinatzeko ekarpenak hainbat modutan egin zitezkeen: aurrez aurre, Alde Zaharreko zenbait lekutan sakabanatu ziren iradokizunetarako

postontzien bidez; antolatutako kale-dinamiketan parte hartuta edo prozesu horretarako sortutako (www.plazara.net) webgunearen eta info@plazara.net helbide elektronikoaren bidez.

“Plazara!” herritarren ekimenetik abiatu eta hiru fasetan garatzekoa da: lehenengoan, herritarrek, taldeek edo gizarte- zein kultur-erakundeek egin zituzten ekarpenak eraikinari eman nahi zaizkion erabilerei dagokienez, eta Udaleko zerbitzu teknikoek (Herritarren Partaidetza eta Hirigintza) ideia eta proposamen horiek batu zituzten, zenbait lan-saiotan, parte-hartzaileekin batera, jauregia erabilera berrietara egokitzeko proiektu arkitektonikoa elkarrekin lantzeko. Bigarren fasean, datorren urtean, kudeaketa-ereduaren, filosofiaren eta antolaketaren inguruan eztabaidatu eta akordioak hartuko dira. Azkenik, hirugarren faseak, zentro komunitario berria garatu eta abiatzea izango du ardatz.

KARTELA ETA TXUPINAZOA JAURTITZEA

San Fermin festak iragartzen dituen kartela eta, 2016az geroztik, txupinazoa jaurtiko duen pertsona nor izango den ere herritarren partaidetza-bidez erabakitzen dira. 7 zenbakidun kartelak, “Sanmarrazkin” izenekoak, iragarri zituen 2016ko sanferminak, Iruñean erroldatutako herritarren botoen % 25,9arekin irabazi baitzuen lehiaketa. Kartela Buztintxuri Ikastetxe Publikoko ikasleek egin eta Mikel Mendibil Ainzúa, Patricia Martiartu Fernández, Mikel Santos Martínez eta Eneko Huarte Gaitak aurkeztu zuten. Zortzi kartel finalisten artean 6.078 lagunek eman zuten botoa, 2015ean baino 954 gehiagok. Horrek esan nahi du % 19 handitu zela parte-hartzea. Eguneko batez besteko boto-kopurua bozketa egin den bederatzi urteetako bigarren handiena izan zen: 506,5 boto egunean. Botoen % 72 www.pamplona.es web-orriaren bidez jaso zen, % 23 Civivox sarean jarritako postontzietan eta beste % 5, 010 zerbitzuaren bidez.

2016an lehen aldiz antolatu zen partaidetza-prozesu bat San Fermin jaiei hasiera ematen dien txupinazoa nork jaurti erabakitzeko. Sanferminetako Mahai Nagusia arduratzen daosatzen duten elkarteek aurkeztutako proposamenak bideratzeaz. Proposamenek behar dituzten bermeak lortzen badituzte (mahaiaren heren baten babes), herritarrek egingo dute haien gaineko bozketa. Jesús Ilundáin ‘El Tuli’ izan zen aurkeztu ziren sei proposamenen artean babes handiena jaso zuena, botoen % 40,3ekin, eta bera izan zen uztailaren 6an txupinazoa jaurtitzeko metxa piztu zuena. 9.830 boto jaso ziren guztira. % 87,5 (8.604) Udaleko web-orriaren bidez jaso dira, 884 boto 010 zerbitzuaren bidez eta 342 Civivoxeko postontzietan.

‘El Tuli’-ren hautagaitza Iruñeko Zabalguneako Merkataritza. Ostalaritza eta Zerbitzuetako Enpresaburuen Elkartek eta Iruñeko Erraldioen Kultur Elkartek proposatu zuten. Hautagaitzaren proposamenetan, ‘El Tuli’-ren meritu indibidualez gain, beraien izaerarekin eta ilusioarekin, berdinak izango ez liratekeen jaiak prestatu zituen belaunaldiko jendeari ere aitortza egin nahi zitzaion. Apaltasunean eta asmamenean oinarrituta, eta garai gogor eta zailean, ondo pasatzeko asmo soilarekin jaiak gizarteratu zituen belaunaldia da.

UDAL-EGUTEGIA

Lehen aldiz, herritarrek aukeratu zituzten, boto bidez, Udalak urte-amaieran banatzen duen udal-egutegia irudikatzen duten irudiak. Mendillorriko ur-deposituen irudi batek, Daniel Andiñ Espinallek egindakoak, irudikatzen zuen azala, emandako 3.460 botoek hala erabaki zutelako. Bozketan 661 pertsonak hartu zuten parte. Hautatutako 52 argazkietatik 13 aukeratu zituzten, urteko hil bakoitzerako bat, eta boto gehien jaso zituenena, azalerako. Mendillorriko deposituen irudiak 278 boto jaso zituen.

Aukeratutako beste sei irudik egile bera zuten: Kike Balenzategui. Horren irudiak bozkatuenak izan ziren Buztintxuri, Etxabakoitz, Iturrama, Arrotxapea, Sanduzelai eta Lezkairuko zaldia-Santa Maria La Real auzoetan. Halaber, irabazle izan zen Iván Sánchez Sánchezen irudi bat, bozkatuena izan baitzen Erripagaña-Beloso-Bidezaren eremuan; Mikel Besga Echávarriren irudia irabazle izan zen Alde Zaharrean; Manuel Matute Royoren argazki bat, Milagrosa-Azpilagaña eremuan aukeratu zuten; eta Íñigo Aranguren Osinagaren argazki bat izan zen Txantrea auzoan boto gehien jaso zituenena.

Lehiaketara 759 irudi aurkeztu ziren, 104 parte-hartzailearenak. Bozketarako, epaimahaiak 4 irudi aurre-hautatu zituen hiriko 13 auzo edo auzo-elkarte bakoitzean.

KULTUR ANIZTASUNAREN FOROA

Kultur Aniztasunaren Foroaren helburua hiriko pertsona guztien eskubideen eta aukeraberdintasunaren alde lan egitea da, euren jatorria kontuan izan gabe. Lehen bilera abenduaren 15ean egin zen, Alberto Labarga Herritarren Partaidetzako, Berdintasuneko eta Gizartea Ahalduztzeko Alorreko zinegotzi-ordezkaria izan zen buru. 24 pertsona joan ziren, esparru horretan lan egiten duten elkarte-ordezkariak zein udal-ordezkariak eta -teknikariak. Kultur Aniztasunaren Foroak hiru lerro estrategikotan lan egiteko asmoa du: erabateko hiritartasuna, arrazakeriaren aurkako edo zurrumurruren aurkako kanpainak eta kultura-aniztasuna. 2017an biltzen jarraitzekoa da.

BESTE JARDUKETA BATZUK

Iruñeko Udalak hitzarmena sinatu zuen **Txantreako Ekimen Sozialen Erkidego Zentroko (C.C.I.S. Txantrea)** erakunde eta kolektibo erabiltzaileekin, beste gauza batzuen artean, antolaketa, erabilera-baldintzak eta ordutegia arautzeko. Zentroa Maria Auxiliadora ikastetxe ohian (Salestarrak) dago, Iruñerria kaleko 24 zenbakian, eta Erruki Etxearen jabetza da

Francisco Franco Patronatuaren oinordeko erakunde gisa. Erruki Etxeak, 2014an, akordioa egin zuen Udalarekin udal-kudeaketa izateko eta prestakuntza-jarduerak eta denbora librekoak hartzeko, eta baita Auzoko Unitatea ere. Eraikinak 940 m2-ko bi solairu ditu, 300 m2-ko antzerki-aretoa eta bi patio, 3.000 m2-ko azalerarekin.

Hitzarmen horren bidez, Udalak Txantreako biztanle-sektore desberdinen elkarte-mugimendua babestu eta bultzatu nahi zuen, eta, halaber, talde, belaunaldi eta kulturen arteko elkarbizitza eta elkartasuna sustatu, eremu horretako kolektibo zaurgarrienen bazterketari aurrea hartzeko neurri gisa. Orobat, udal-zerbitzu publikoen presentzia areagotu nahi du, gertutik eta elkarren arteko kudeaketaren bidez antolatuko den herritarren interesekin bat datorren jarduera-eskaintza baten bidez. Helburuen artean dago, baita ere, auzoko entitateen erantzunkidetasuna eta inplikazioa suspertzea.

Udalak Gizarte Ikasketak Sustatzeko Institutua Fundazioa IPES Elkartearekin ere hitzarmen bat sinatu zuen Erraldoien Patio ondoan leku bat aldi baterako lagatzeko Emakumeen Liburutegia-Dokumentazio Zentroa behin-behinekoz hartzeko. **Emakumeen Liburutegia-Dokumentazio Zentroak** 30 urtetik gora daramatza funtzionatzen 1985etik. Emakumeei, genero-azterketei, feminismoei eta historiari, berdintasunari eta emakumeek kulturari (literatura, poesia, zinema, artea, komikia, etab.) egindako ekarpenei buruzko gaien informazio espezializatu eta eguneratuaren prestakuntza eta hedapena ditu ardatz. Denbora horretan hiriko, Foru Komunitateko, herrialdeko eta nazioarteko erreferente bihurtu da, genero-ikuspegia, emakumeen eskubideen defentsa eta emakumeek beraiei premien arabera eskura ditzaketen zerbitzu eta baliabideen hedapena txertatzen espezializatua.

BERDINTASUNA ETA LGTBI

BERDINTASUNA

Berdintasunerako udal-egiturak finkatzeko helburuarekin, Herritarren Partaidetzako, Berdintasuneko eta Gizarte Ahalduztzeko Alorrak taldea handitu zuen 2016an, Berdintasuneko teknikari bat izatetik hiru izatera pasatuz (gaur egun denak daude plantilla organikoan). Modu horretan, genero-ikuspegiaren zeharkakotasunerako laguntza teknikoa bermatzeko gaitasuna duten berdintasunerako teknikarien talde bat eratu da, udal-alor bakoitzean erreferenteak dituen.

2016an, Emakumearen Udal Kontseilua hiru aldiz bildu zen biltzar arruntetan: martxoan, ekainean eta urrian. Beste batzuen artean, honako gai hauek zeuden gai-zerrendan: III. Planaren dokumentuaren aurkezpena Kontseiluak oniritzia emateko eta ondorengo Gobernu Batzordearen eta Udalbatzaren onespenezko proposamena eta Eraso Sexisten aurrean izan

beharreko Jarduketa Protokoloaren onespena.

Udalaren intraneten, online bidezko sentsibilizazio-modulu bat dago jendearen eskura Berdintasun arloaz. Ez dago daturik, ordea, hartan izaniko bisita kopuruaz. Berdintasuneko Alorrak garaturiko sentsibilizazio-jarduketa guztiak berariaz bidaltzen zaizkie udal-langile guztiei barne-postaren bitartez, sentsibilizazioaren berri emateko eta hartan parte hartzera gonbidatzeko.

Halaber, udal-alor guztietarako urtero aurreikusitako bi ekintza egitea mantendu egingo da: batetik, berdintasunaren printzipioa mantentzea bai deialdian bai udal-langileen hautapen- eta sustapen-prozesuan; eta bestetik, Udaleko informazio-sistemetan datuak sexuaren arabera bereizi beharra.

III. Berdintasun Plana

Iruñeko III. Berdintasun Plana 2016-2022, Udalbatzak onartu zuen apirilaren 7an. Hona agiriaren oinarritzko premisak: emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna gobernagarritasun-printzipio gisara; genero-zeharkakotasuna politika publikoetan esku hartu eta haiek eraldatzeko estrategia gisara; oraindik desberdintasunek irauten dutelako egiaztapena, emakumeek baliabideak eskuratu eta kontrolatzeko orduan; jokaleku eta manera berriak ezartzeko beharra, demokrazia parekide eta parte-hartzaile baterantz aurrera egingo bada.

Horretarako, zazpi printzipio gidari identifikatu ditu, egin beharreko jarduketak markatzen dituztenak eta zentzua ematen dietenak. Hauek dira printzipioak: Genero-ikuspegia, Dibertsitatea, Parte-hartzea eta Gidaritza, Neutraltasunik eza, Erantzunkidetasuna, Aurrekontu-bermea eta Gardentasun-bermea. 4 esku-hartze esparruk eta 15 ildo estrategikok (IE) zedarritzen dute III. Berdintasun Planaren agiri estrategikoaren egitura. Esparru bakoitzean zehazten dira helburu orokorrak (HO), helburu zehatzak (HZ) eta proposatutako jarduketak. III. Planaren garapena urteko planetan zehazten da, udal-alor guztietan onartutako aurrekontuekin eta Planaren lau esparruetan proiektuak garatzen dituzten zeharkako proiektu komunekin: Gobernantza eta konpromiso politikoa berdintasunarekin; Emakumeen ahalduntzea eta balio-aldaketa; Zainketa-lanen eta erantzunkidetasunaren aitortza, bizitzaren sostengarritasunerako gako-elementu gisa, eta Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitza hiri seguru batean.

III. Berdintasun Plana plan orokor gisa sortu da, eta hirian berdintasunaren arloan aurrera egiteko zedarritu diren erabaki estrategikoen inguruan eraiki da, bere planteamenduan udal-egitura gaindituz eta administrazioko eta udal-kudeaketako arlo ezberdinak elkar hartuta engaiatzen dituzten lan-esparruak eta helburuak ezarritik. Atal horretan daude jasota batez ere berdintasunarekiko gobernantzaren eta konpromiso politikoaren esparruan gauzatutako jarduketak Berdintasuneko Alorraren erantzukizunpekoak direlako; izan ere, beste alor batzuek -horiekin koordinatuta lan egiten da- garatutako ekintzek memorien parte izango dira.

Esparrua: Gobernantza eta berdintasunaren aldeko konpromiso politikoa

Gobernantza eta Berdintasunaren aldeko Konpromiso Politikoa esparruaren asmoa da Udaletik emakumeen berdintasunarekiko benetako konpromisoa bermatzea, printzipio hori gobernagarritasun-printzipio bihurtuz. Horretarako, 3 lerro estrategiko definitu ziren berdintasunaren kudeaketarako egituren eta koordinazioaren inguruan, gaitasun politiko eta teknikoaren inguruan eta berdintasun-printzipioa osatzen duten lan- eta administrazio-prozeduren inguruan.

2016an, gobernantza eta berdintasunaren aldeko konpromiso politikoaren arlotik egindako jarduketan pisua lotuta zegoen Berdintasunerako III. Planaren dokumentu estrategikoa amaitzearekin eta -onartu ondoren- hura aurkeztearekin eta 2017rako urteko laneko lehen plana egitearekin. 3 elkartek eta 14 teknikarik (12 emakume eta 2 gizonezko) egindako 70 ekarpen jaso ziren. Iruñeko III. Berdintasun Plana 2016-2022, Emakumearen Udal Kontseiluan aurkeztu zen 2016ko martxoaren 17an oniritzia jaso zezan. Kontseiluak Gobernu Batzordeari eta Udalbatzari proposatu zion onespenez formala eman ziezaioten.

III. Plana abian jartzeari eta garatzeari dagokionez, Udalak plana egiteko prozesuari laguntzen dion laguntza teknikoaren zerbitzuak kontratatu zituen hura martxan jartzen lagunduko duten ekintzak eta baldintzak diseinatzeko eta urteko laneko lehen plana behin betiko gauzatzeko: Aurretiko fasea. Fase horretan 9 koordinazio-bilera egin ziren eta aurrez aurreko 2 saio Batzorde Teknikoarekin. Sortutako lau lantaldeei zuzendutako hiru prestakuntza-saio eta emakume-elkarte eta/edo elkarte feministentzako saio bat ere egin ziren. Saio horien emaitza proposamenak sistematizatzeko dokumentu batean zehaztu zen, zeinak 2017an gauzatu beharreko proposatutako lehentasunen berri emango baitu.

Gastu- eta sarrera-politiken eragina genero-ikuspegitik aztertu eta ebaluatzeko helburuarekin, Udalak genero-inpaktuari buruzko txostena egitea eskatu zuen Udaleko sarrera eta gastuen aurrekontuetan.

ESPARRUA: INDARKERIARIK GABEKO BIZITZA HIRI SEGURU BATEAN

SANFERMINETAKO KANPAINA: 'POR UNAS FIESTAS LIBRES DE AGRESIONES SEXISTAS - ERASO SEXISTARIK GABEKO JAIEN ALDE'.

Hona kanpainaren helburuetako batzuk: udal-konpromisoan aurrerapausoak ematea festetako eraso sexistak ezabatze; jaietan, emakumeendako segurtasuna hobetzea hala jai-guneetan nola hiriaren gainerako lekuetan; herritarrei jakinaraztea zer-nolako baliabideak dituzten eskura jaietan aholkularitzaz, laguntzaz, eta eraso sexistak salatze; jendea sentsibilizatzea eraso sexisten aurkako herritarren erantzunak duen garrantziaz, eta pertsonak, elkarrekin, tabernak, peñak eta abarrek duten ardura partekatuz jai-guneak leku seguruak izan daitezen.

Urtean zehar, hainbat lan-saio egin ziren "Sanferminen Liburu Zuria" izango den amaierako dokumenturako proposamenak jasotzeko xedez. Herritartasuna, Dibertsitatea eta Berdintasuna lantaldearen barruan, jaiaren hedapenarekin, bertan parte hartzearekin eta haren antolaketa eta gozamenarekin lotutako esparruetan egindako proposamenen zerrenda egin zen.

Sanferminen aurreko sentsibilizazio-jardueren artean, batetik, herritarrentzako zumba-saio irekia egin zen Udaletxe plazan eta, bestetik, *DesenCORSEtándonos* saioa, emakumei jaiaren askatasunez bizitzen eta parte hartzea galarazten dieten kortseak erakusten zituen. Bi jarduerak herritar guztientzakoak ziren eta ikusle ugari izan zuten.

Jaietan indarkeria matxistaren aurkako arbuioa adierazteko esku gorriaren irudia erabili zen (Familia eta Berdintasunerako Nafarroako Institutuak Nafarroako udalei egindako proposamena) Udaletxe plazako lepoko zapien atzealdea gehituta. Ezpainzapiak, kartelak eta banderolak diseinatu, egin eta banatu ziren balkoietan paratzeko; seinaleztapen-oihalak egin ziren; "Eraso sexistarik gabeko jaien alde" izeneko gidak lau hizkuntzatan argitaratu ziren indarkeria sexista identifikatzeko argibideekin eta hura geldiarazteko, hari erantzuteko edo laguntza eta arreta eskatzeko proposamenekin; lau hizkuntzatan (euskara, gaztelania, ingelesa eta frantsesa) idatzitako "Festetako eraso sexisten aurkako dekalogo" duten txartelak; arreta eta larrialdietarako telefonoak; eta esku gorrien 20.000 pin.

Sanferminetan eraso sexistei buruzko informazio-etxola bat jarri zen Gazteluko plazan. Guztira 7.475 pertsona artatu ziren informazio-gune horretan (5.412 emakume eta 2.063 gizonezko). Artatutako herritarren % 58 Iruñekoak dira. Herritarrek kanpainari buruz informatzeaz gain, informazio-gidak banatu ziren, dauden baliabideei buruzko orientazioa eskaini zen eta intentsitate baxuko gorabehera buruzko 41 galdetegi anonimo jaso ziren.

Gainera, 2016an *Eraso sexistei erantzun politikoa eta herritarrena emateko protokoloa* berrikusteko prozesua jarri zen martxan. Azaroan lehen lantegi bat egin zen komunikabideekin, elkarte-mugimenduarekin eta herritarrekin. Lantegi horretan, Sanferminetan emakumeen

aurkako indarkeria-kasuetarako informazio-tratamenduari buruzko gomendioak jasotzen zituen eskuliburua nola egin erabaki zen (aldi berean azaroaren 25aren inguruko jardueretan kokatuta).

Udalak laguntza teknikoa kontratatu zuen emakumeen ikuspegitik Sanferminetan hiriko puntu beltzei eta jaiari buruzko diagnostikoa egiteko modu parte-hartzailean. Jaietan hiriko puntu beltzak -espazioari eta gizarteari dagokienez- identifikatzea eta emakumeek eta indarkeria patriarkalei aurre egin behar dieten beste identitate batzuek jaiak askatasunez gozatzea errazteko proposamenak egitea zen helburua. Horren ondorioz, txosten hau egin zen: "Puntu kritikoak Sanferminetan. Segurtasunari buruzko diagnostikoa emakumeen ikuspegitik". Txostenean hiriko ezaugarri arkitektonikoekin zerikusia duten 24 puntu kritiko diagnostikatu dira, eta Sanferminetan izaten diren testuinguru jakin batzuk, leku arriskutsuak direnak, eta eremu orokorrekin arazo bihurtzen diren egoerak, hiriko leku jakin batzuetara murrizten ez direnak.

Eraso sexistek jai inguruneetan duten inpaktua analizatzeko azterketa bat ere eskatu zuen Udalak, eta 2016an, Berdintasun-taldeari aurkeztu zioten Sanferminetako sexu-indarkeriari eta indarkeria sexistari buruzko, droga-kontsumoarekin duen loturari buruzko, bere jatorriari buruzko eta gaueko aisia-testuinguruetan droga-kontsumoaren eta sexu-abusuen arteko loturaren inguruko prebentzioari buruzko ikerketa kualitatibo horren lehen aurrerakina.

AZAROAK 25 KANPAINA

Hau da azaroaren 25eko kanpainaren goiburua: 'Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko INPLIKATUTAKO herritarrak... egunero, leku eta esparru guztietan, behartutakoak babestuz behartzen dituztenen aurka'. Data horren inguruan eta goiburu horrekin antolatu ziren herritarrentzako lantegiak emakumeen aurkako indarkeriari buruzko albisteen aurrean komunikabideek duten jokabidea aztertzeke eta eztabaidatzeko. Gainera, Udalak Komunikabideekiko I Elkarretaratzea antolatu zuen emakumeen aurkako erasoen inguruan Sanferminetan zehar eta ondoren azaldutako albiste eta informazioen analisisa haiekin partekatzeke eta komunikazio-esparru etiko partekatuetarantz joateko aukera emango lukeen eztabaida proposatzeko helburuarekin.

Udalak, gainera, Nafarroako Berdintasun Teknikarien Sareak adostutako manifestua zabaltu du eta udaletxearen fatxada morez argitu zuen eta goiburu hau zuen pankarta jarri zuen: "No a las agresiones sexistas. Erasos sexistarik ez". Genero-indarkeriaren aurkako esku morekun 18.000 pin banatu eta herritarrei gonbidapena luzatu zitzaion erakundearen elkarretaratzeetan eta Emakume Plataformak indarkeria sexistaren aurka deitutako manifestazioan parte hartzeko. Martxoan bezala, emakume-elkarteek Azaroaren 25eko agendan antolatutako jarduera guztiak Udalaren webguneko egutegian sartzeko aukera mantendu zen.

ESPARRUA: EMAKUMEAK AHALDUNTZEA ETA BALIO-ALDAKETA

MARTXOAK 8, EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

Martxoaren 8ko oroitzapenezko programan ekitaldi hauek zeuden: bi hitzaldi, konferentzia bat, erakusketa bat, bakarriketa bat, haur-ipuinen hainbat kontalari, antzerki bat eta 'Iruña, molde femeninoan' argazki-lehiaketa. www.pamplona.es webgunean agenda berezi bat ere moldatu zen, Udalaren eta Iruñeko talde nahiz kolektibo guztien programazioaren berri emateko.

Udalak herritarrei eta erakundeei zuzendutako elkarretaratzea antolatu zuen goiburu honekin: *'Feminismoa ez da matxismoaren kontrakoa, ezberdintasunaren antidoto onena baizik, orain inoiz baino beharrezkoagoa!'* Nafarroako Berdintasun Teknikarien Sareak proposatuta, Udalak adierazpen instituzionala onartu zuen osoko bilkuran, Udalaren konpromisoa adieraziz: *"tokian tokiko ekintzen bidez emakume eta gizonezkoen arteko berdintasunaren alde lanean jarraitzeko; mugimendu feminista bere eskaera eta borroketan babesteko; politika publiko guztietan berdintasun-printzipioa txertatzea bermatzeko; eta udal-jarduketa guztietan genero-harremanak kontuan hartzeko"*.

COMPAÑÍA ZENTROA

Emakumeen presentzia eta parte-hartze aktiboa sustatze aldera, eta zehazki, eten digitala murrizte aldera, Compañía Zentroan 47 informatika-ikastaro eman ziren 2016an hainbat talderentzat, bai oinarritzko mailan, bai maila aurreratueta: 55 urtetik gorako emakumeak, 55 urtetik beherako emakumeak, emakume-elkarteak, enpresa txikien buruak, merkatariak eta profesional autonomoak, graduiko ikasleak (LH edo unibertsitatekoak), emakume langabeak, enplegua hobetu nahi dutenak, adingabeak eta gazteak.

Zentroko Online Informazio Sistemak IKTei eta aukera-berdintasunari loturiko bilduma eguneratua eskaintzen du: dokumentuak, artikulak, web-estekak, software libreko programak, legeria, eskuliburuak. Urtean 5.023 erabilera izan ziren. Compañía Zentroak 305 jarraitzaile ditu Facebooken, eta 117 Twitterren. 2016an, 264 argitalpen egin ziren. 3.491 lagunek jo zuten zentrori, eskura dituen ekipamendu libreak erabiltzeko.

LANKIDETZA-HITZARMENA IPES DOKUMENTAZIO ZENTROAREKIN

Hitzarmenari esker, emakumeei eta genero-ekitateari buruzko zerbitzu espezializatu gisa finkatu egin zen Iruñean IPES Elkarteko Emakumeen Liburutegia-Dokumentazio Zentroa. Era berean, ikusezina ohi den, sakabanatuta ohi dagoen edo sekula eman ohi ez den informazioa jarri zen jendearen eskura, edota zenbaitetan, sarbide zaileko zentroetan dagoen informazioa ere bai. 2016an Udalak lagatako leku batera lekualdatu zen zentroa, eta Kulturako, Hizkuntza Politikako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorreko beheko solairuan kokatu zen. 585 dokumentu berri eman zitzaien alta (liburuak, liburuxkak, ikus-entzunezko materiala edo material elektronikoa), eta 4.056 sarrera izan ziren dokumentazio-funtsean (2.314 kontsulta aretoan; 1.742 kontsulta online katalogoan, eta 1.157 mailegu etxerako).

DIRU-LAGUNTZAK

Udalak 140.000 euro eman zizkien irabazi-asmorik gabeko 20 elkarteri, Berdintasun Plana garatzeko programak gauzatzera bideratutako proiektuak abian jartze aldera. Proiektuek hainbat gai jorratzen dituzte: generoen arteko ezberdintasunari buruzko sentsibilizazioa; emakumeak ahalduntzeko baliabideak ikasi eta garatzea; jarrera positibo eta aktiboak sustatzea, genero-indarkeriari aurrea hartzeko, familiako bizitza eta bizitza pertsonala eta profesionala bateragarri egiteko eta erantzunkidetasuna lantzeko. Erakundeek ikerketa, prestakuntza, jardunaldi, topaketa eta hainbat jardueren bidez garatzen dituzte proiektu horiek.

FEMINISMOEN ESKOLA

Batik bat ikuspegi dinamiko eta parte-hartzaile batetik abiatuta, Feminismoen Eskolan ere hasi zen. 55 orduko iraupena zuen, 22 saiotan banatuta. 18 plaza zeuden (pertsona interesdunak askoz gehiago izan ziren). Prestakuntza 2017ko martxoan amaitu zen.

EMAKUMEAK HIRIAN IZENDATZEA

Hainbat espazio publiko izendatzeaz gain, beste espazio publiko batzuk emakume-izenekin izendatzera gonbidatu zituen Udalak entitate publikoak zein pribatuak, emakumeek Iruñeko garapenean arlo guztietan (gizartean, kulturean, ekonomian eta politikan) bete duten eginkizuna aitortzeko. Emakumeak Hirian Izendatzea lantaldeak emakumeek hirian duten presentzia bistaratzeko ekarpenak egiten jarraitzen du. Pompaelon azaldutako emakumeen lehen izenekin

Andre Maria Erreginaren plazan abenduan inauguratutako hilarri bat nabarmentzen da. Hilarria jartzeaz gain, Pompelori buruzko, hango hileta-ohiturei buruzko eta Iruñea erromatarrean emakumeek zuten rolari buruzko hitzaldia ere egon zen.

CIVIVOX PROGRAMAZIOA

2013az geroztik izandako ohiko lankidetzaz gain, 'Generoa eta Berdintasuna' izeneko atal espezifiko bat dago Civivoxen hiruhileko programazioan. Horren barruan zineforum feministak programatzen dira eta baita genero-ikuspegia duten ikus-entzunezkoetako diskurtsoen gaineko zinema eta begiradari buruzko ikastaroa ere.

JARDUNALDIAK

2016ko irailean 'Etxeko ekonomia eta lana' gaiari buruzko jardunaldiak egin ziren. Ekonomia feministari buruzko lantegiak eta gizakien salerosketari eta etxeko enpleguko zapalkuntzari buruzko hitzaldiak eta ondorengo lantegiak osatu zituzten jardunaldiak. Urrian, 'Miradas VIHvas' izenburupean, bi jardunaldi batzen zituen elkarretaratzea egin zen Iruñean: GIBa eta hiesa ikusarazteko eta horien inguruan sentsibilizatzeko II. Jardunaldiak, sexu-osasuneko profesionalei zein aktibistei zuzenduak, eta GIBa eta hiesa ikusarazteko eta horien inguruan sentsibilizatzeko II. Astea, herritarrei, oro har, zuzendua. Izaera nazionalako bi ekitaldietan, izaera profesionaleko bost mahai-inguru eta hainbat hitzaldi, antzezlan bat eta hiru film (bi estreinaldiak ziren) aurkeztu ziren. '30 urteko borroka eta kontzientziazioa' erakusketa ere inauguratu zen.

ESPARRUA: ZAINKETA-LANAK ETA ERANTZUNKIDETASUNA BIZITZAREN JASANGARRITASUNERAKO GAKOTZAT AITORTZEA

“BONO DEMUESTRA” GABONETAKO KANPAINA

Gabonetako kanpaina egin zen zaintza-zeregin eta -lanen ezinbesteko banaketa zuzenaren inguruan. Horretarako, etxeko eguneroko lanak eta zaintzak, tradizionalki eta gehienetan emakumeek egiten dituztenak, bistaratzeko, balioesteko eta, ondorioz, banatzeko proposatu zitzairen herritarrei. Bonu horiek hainbat Civioxetan banatu ziren 2017ko udal-egutegiarekin batera.

ETXEKO ZEREGINEI AURRE EGIN ETA BIZIRIK IRAUTEKO IKASTAROAK

Etxeko lanak egiteko orduan erantzunkidetasuna eta estereotipo-haustura indartzeko helburuarekin, bi ikastaro hauen bi edizio egin ziren: autonomia pertsonalarena eta zaintzarekiko konpromisoarena, gizonezkoentzat eta ahalduzko pertsonalarena, emakumeentzat. Ikastaro horietan, gizonezkoek sukaldaritzako, lisaketako eta autonomia pertsonaleko beste hainbat trebetasunetako oinarritzako kontuak ikasten dituzte eta zaintzarekiko konpromisoa hartzen dute; emakumeek, berriz, brikolajeari, elektrizitateari eta autonomia eta ahalduzko pertsonaleko beste trebetasun batzuei buruz ikasten dute. Gainera, berdintasunari, erantzunkidetasunari eta maskulinitatei/feminitatei buruzko prestakuntza eskaintzen zitzairen bi sexuei. Talde bakoitzak 16 kide ditu (hiru adin-taldeko osaera orekatua), eta deialdi guztietan, eskura dauden tokiak halako hiru izaten dira eskariak.

LGTBI

Urtean zehar, LGTBI zentroaren mendeko ‘Sexu- eta genero-aniztasunari buruko informazio eta arreta’ zerbitzuaren laguntza teknikoa kontratatzeke eskaintza egin du. Zerbitzua San Gregorio kalean kokatuko da eta lokala birgaitzeko lanak hasi dira. LGTBI zentroak sexu- eta genero-aniztasunari buruzko informazioa eta prestakuntza eskaintzen dizkie herritarrei eta profesionalei eta jarduketak egiten ditu homofobia, lesbofobia eta transfobia arloan prebenitu eta sentsibilizatzeko. Modu horretan, Udalak zerbitzua eskaini nahi die sexu-orientazioari dagokionez edo arau heteronormatiboekin bat ez datozen eta zentzu askotan mendekotasuna duten pertsonen, genero-erakuntzari dagokionez.

GIZARTE AHALDUNTZEA

GAZTERIA

GAZTEDIAREN ETXEA

Gaztediaren Etxeak ehun sozialarekin gehiago artikulatzea eta inplikatzeari lortu nahi du eskaera desberdinen eta gero eta zorrotzagoen arabera erantzuna emateko. Bere helburuen artean daude bizi-kalitatea, solidaritatea, autonomia pertsonala eta inplikazio edo parte-hartze boluntarioa sustatzea ere. Jarduera-programen, prestakuntza-eskaintzaren, arreta-zerbitzuen eta Etxearen informazioaren kudeaketaren baitan garatuko dira horiek guztiak. Gaztediaren Etxeak gure hiriko gaztediari zuzendutako hogeitazero zerbitzutik gora kudeatzen ditu 11 lagunek osatutako kudeaketa-taldearekin. Prestakuntza-eskaintzako 25 monitore gehitu behar zaizkie horiei.

Gazteentzako Informazio Bulegoa

Hauek dira Gazteentzako Informazio Bulegoaren eginkizunak: Informazio gehiago eskuratzen laguntzen duten alderdi guztien berri ematea, bulegora iristen diren lan, lehiaketa, ikastaro eta beka interesgarriak buruzko eskaintza eta deialdiak gazteen artean hedatzea; eta informazioa modu eraginkorrean hedatzeko interesgarriak diren era guztietako hedapen-euskarriak kudeatzea. 2016an, 8.280 lagunek egin zituzten arreta-eskaerak Gazteentzako Informazio Bulegoan. 19 eta 25 urte bitarteko gazteek osatzen dute erabiltzaile-talde ugariena, kontsulten % 25ekin. Hauek dira gai ohikoenak: ikasketak, prestakuntza eta kultura-ikastaroak 3.128 kontsultarekin (guztien % 38), aisia eta jarduerak 2.024 kontsultarekin (% 24) eta sariak eta lehiaketak, 1.288 kontsultarekin (% 16). Kontsulten % 66 aurretik aurre egindakoak dira, % 25 telefonoz eta % 9 posta elektronikoz.

Gazteentzako Informazio Bulegoan txertatutako beste zerbitzu batzuk

Gaztediaren Etxeak bestelako zerbitzu osagarriak eskaintzen dizkie gazteei, gai batzuen gainean argibide espezializatuagoa emate aldera edota hiriko gazteen artean informazioa hedatzeko modu berriak praktikan jartze aldera.

***Aholkularitza Espezializatuko Zerbitzua**

Gaztediaren Etxeko Aholkularitza Espezializatuko Zerbitzua Iruñeko Udalak sortutako baliabide bat da 14tik 30 urtera bitarteko gazteei berezkoak dituzten arloetan harrera profesionala, konfidentziala eta doakoa eskaintzeko. Zerbitzuaren jardura www.pamplonajoven.es

webgunera igotzen diren aldizkako artikuluekin eta gazteei zuzendutako bere eskumeneko gaiei buruzko jardueren prestaketarekin eta antolaketarekin osatzen da.

- **Aholkularitza Juridikoa**
Horietatik, erdiak baino gehiago, 251, zuzenbide zibilari buruzkoak ziren, 107 lanari buruzkoak, 85 administrazio-izaerakoak, 19 kontsumoarekin zerikusia dutenak, 9 zigorzuzenbidekoak eta 6 beste esparru batzuetakoak. Hau da pertsona eskatzailearen profila: emakumea (% 55), unibertsitate-ikasketak egin dituen edo egiten ari dena (% 53), 26 eta 30 urte bitartekoa eta Iruñekoa.
- **Gazte-asoziazionismorako Aholkularitza**
Urte osoan 252 kontsultari erantzun zitzaizkien; horietatik 72k elkarteak eratzearekin zuten zerikusia; 62k, giza baliabideen kudeaketarekin eta boluntarioekin; 59k, estatutuak aldatzearekin, 25ek kontabilitatearekin, 21ek diru-laguntzekin eta 13k beste alderdi batzuekin.
% 60 gazteekin edo gazteei zuzendutako jarduerak egiten dituzten elkarteak dira eta % 40, gazte-elkarteak.
- **Aholkularitza psikologikoa**
Aholkularitza psikologikoak 102 zerbitzu eman zituen 2016an.
Horietatik, 53 harreman pertsonalei buruzkoak izan ziren, 38 adimen- eta emozio-osasunari buruzkoak, 4 sexualitateari buruzkoak, 1 elikadura-jokabideari buruzkoa eta 1 jarrera bortitz edo oldarkorrei buruzkoa. Hau da artatutako pertsonaren profila: emakumea (% 68), LH edo Batxilergoa ikasten ari dena (% 46), 19 eta 25 urte bitartekoa (% 34) eta Iruñekoa (% 61).
- **Ikasketei, Irtenbide Profesionalei, Aisiari eta Denbora Libreari buruzko Aholkularitza**
2016an 107 jaso dira, modu honetan banatuta:
42 hezkuntzaz, 9, irtenbide profesionalez, 18 hizkuntzez, 12 enplegu-bilaketaz eta/edo curriculumak prestatzeaz, 12 auzolandegiez, 4 boluntariorik eta 10 aisiaraz. Artatutako pertsona gehienek unibertsitate-ikasketak zituzten edo egiten ari ziren (% 33), emakumeak ziren (% 56) eta 19 eta 25 urte bitartean zituzten.

***Berriemaileen Sarea**

Gaztediaren Etxeko Gazteendako Informazio Bulegoaren mendeko Berriemaileen Programa 1996/1997 ikasturtetik aurrera egin da etenik gabe. 2015-2016 ikasturtean 40 ikastetxek parte hartu zuten programan, eta 2016-2017 ikasturtean, berriz, 42k. Ikasturte honetako berrietasun gisa, gazteentzako, gazte-elkarteentzako eta gazteen beste eremu batzuentzako profesionaltasun-ziurtagiriak eskaintzen dituzten erakundeei deialdia ireki zitzaizkien, hau da, bigarren hezkuntzako zentroak edo ikasle-egoitza nagusiak ez diren erakundeei.

***Informazio-klubak**

Gai batzuei buruzko posta elektronikoak bidaltzen dira informazioa emateko. Gazteek izena emateko orria bete behar dute Gaztediaren Etxean edo www.pamplonajoven.es webgunean, informazioa jaso nahi duten gaiak aipatuz: etxebizitza, enplegua, Gaztediaren Etxeko jarduerak, udal-jarduerak, ikastaroak eta jardunaldiak, bekak, sariak, ekitaldien agenda, boluntarioria eta Buletin Gaztea. 2016an 248.504 posta bidali ziren 91 txandatan, hain zuzen ere, 2015ean baino % 18 gehiago. 6.254 pertsona daude zerbitzuan izena emanda.

***Bidaiaategia**

92 erabiltzaile ditu zerbitzuak, 2015eko 120 baino kopuru txikiagoa. Kotsulten % 21 Espainiako helmugei buruzkoak dira eta % 15 ingelesez hitz egiten duten herrialde anglosaxoiei buruzkoak. Eskatzen den informazio gehien-gehiena turismo arlokoa da, eta maiz lan arloko informazioa ere bai.

Zerbitzuak aukera ematen du erabiltzaileek Bidaiaategiko funtsak mailegutan har ditzaten beren bidaietan erabiltzeko. Urtean zehar, 13 gaztek hartu zituzten materialak.

***Boluntarioentzako Argibide Bulegoa**

Zerbitzu honen bidez, deskribapen-fitxa bat bidaltzen zaie aldian behin Iruñeko boluntario-entitateei, behar dituzten boluntarioen berri eman dezaten. Behin fitxa eta informazio osagarria jasota, den-dena sartzan da Gaztediaren Etxeko Gazteentzako Informazio Bulegoaren informazioaren datu-basean. Une horretatik aurrera, eskariak zabaltzeko prozesua hasten da: eskariak iragarki-oholean jartzen dira ikusgai, haietan interesatuta dagoen orok informazio eska dezan. Eskari guztiekin buletin elektronikoa egiten da, eta hamabostean behin banatzen zaie izena emandako 2.488 pertsonari. 2016an 21 buletin elektronikoa bidali ziren, guztira 46.060 posta elektronikoa eskariak banatzeko.

Bestalde, eskariak egiten joan ziren entitateekin eta boluntario-eskariak hedatzeko interesa izan dezaketen guztiekin, entitate eskatzaileen datu-basea egin zen. Datu-base horretan, gaur egun, 193 entitate daude izena emanda. Zabaldutako boluntarioria-postuak 179 eskari izan ziren 2016an.

Aretoak lagatzeko zerbitzua

2016an aretoak lagatzeko zerbitzua erabili zuten pertsona-kopurua 56.306koa izan zen, aurreko urtekoa baino % 4 baxuagoa, orduan 58.681 erregistratu baitziren. Hain zuzen ere,

44.329 pertsona (% 79) talde egonkorretakoak dira eta 11.977 (% 21) unean uneko taldeetakoak. Hileko batez bestekoa 4.692 pertsona ingurukoa da. Erabiltzaile kopururik handiena apirilean izan zen. Hil horretan 5.396 pertsonak erabili zituzten zentroko instalazioak. 2016an, guztira 18.868 orduz erabili zen Gaztediaren Etxea, 2015ean baino % 1 gutxiago.

	ERABILTZAILE-KOPURUA			ERABILERA-ORDUAK		
	Egonkorrak	Aldizkakoak	GUZTIRA	Egonkorrak	Aldizkakoak	GUZTIRA
GUZTIRA	44.329	11.977	56.306	14.875	3.993	0

Ikasketa-gela bi helbururekin jarri zen abian: batetik, hiriko ikasle gazteen eskura ikasketa-gune bat jartzea, eta bestetik, instalazioen erabilera goizeko ordutegian optimizatzea, astelehenetik ostiralera, gazteen berezko dinamiken ondorioz, eraikina gutxi erabiltzen delako ordu horietan. Gelak 24 ikasketa-postu ditu eta WIFI-estaldura ere badu. Urtean zehar 868 pertsonak erabili zuten zerbitzua, aurreko urtean erabili zuten 817 gazteak baino % 6 gehiago.

Ekitaldiak Programatzeko Zerbitzua

Gaztediaren Etxea gizarte- eta kultura-ekitaldiak antolatzen saiatzen da, gazteak dinamizatzeko, eta bide emateko hiriko gazteen arte-, kultura- eta gizarte-kezka eta adierazpenei. Horrela, Gaztediaren Etxea bertara joaten den gazte ororen zentroa izatea da xedea, bertan parte-hartzea, asoziazionismoa, informazioa, garapena, eta abar bideratzeko.

***Ikastaroak**

2016an, Gaztediaren Etxeak 100 ikastaro antolatu zituen, eta 1.709 pertsonak hartu zuten parte.

Ikastaroen iraupena 6 eta 50 ordu bitartekoa izan zen eta ikastaro bakoitzeko parte-hartzaile kopurua 20ra mugatua zegoen, sukaldaritzakoan izan ezik, 16koa baitzen. Matrikula-prezioa aldatu egiten da iraupenaren arabera (ordu-kopurua) eta parte-hartzaileen adinaren arabera. Ikastaroek gai-aniztasun handia dute, 5 arlotan antolatuta: kirol-jarduerak; dantza eta adierazpena, estetika eta ongizatea, kultura-ikastaroak eta garapen pertsonal eta profesionalekoak, eta informatikako tailerrak. Kirol-jardueren 27 ikastaro, dantza eta adierazpeneko 28, estetika eta ongizateko 19 eta kultura eta garapen pertsonal eta profesionaleko 26 antolatu dira. Informatikako tailerrei dagokienez, 44 egin ziren eta 679 pertsonak hartu zuten parte.

***Kultur ekitaldiak**

22 kultura-ekitaldi antolatu ziren. Gazte-kolektiboek garatutako eta udal-oniritzia jasotako jarduerak ez dira horien artean sartzen. Kultura-ekitaldi horietan 1.644 pertsona izan ziren. Ekitaldietan garatutako jarduerak gai hauen ingurukoak ziren: 7 antzezlan (541 ikusle); lehiaketa bat (23 parte-hartzaile); 3 ikastaro-erakustaldi (870 bertaratutako); kontzertu bat (76 bertaratutako); 2 sukaldaritza-lantegi (66 parte-hartzaile); 3 eskulan-lantegi (13 lagun) eta 4 robotika-lantegi (55 lagun).

Jarduera horien guztien artean zeuden Gaztediaren Etxean urte horretan egindako zikloen barnean egindakoak. Gazte Antzerkiaren X. Zikloa (apirilaren 18tik 24ra, sei antzezlanekin), aScena! kontzertuak (bi kontzertu) eta Robotika-goizak (Arduinoko lau lantegi)

***Erakusketak**

Erakusketa-programazioa prestatzerakoan, lehentasuna ematen zaie artista gazteen erakusketei eta gazte-gaiak jorratzen dituztenei. 2016an, 9 erakusketa egin ziren eta, guztira, 1.065 lagun bertaratu ziren.

***Aisia-larunbatak**

Gaztediaren Etxeak hamar aisia-larunbat antolatzen ditu urte osoan zehar. Gazte-elkarteen parte-hartze aktiboa bilatzen da eta, horretarako, jendeari irekitako jarduerak proposatzeko gonbidapena egiten zaie.

Urtean zehar egindako aisia-larunbaten 10 saioetara 860 lagun bertaratu ziren. Saio hauek egin ziren: gaueko aisia, mahai-jokoak, robotika, azoka-arratsaldea, Otaku Day, hiri-dantza, zinemagintza eta argazkigintza dokumentala, zientzia-arratsaldea, beldurrezkoa, antzerkikoa eta munduko kulturen arratsaldea.

***Gazte taldeek eta elkarteek garaturiko jarduerak**

Jarduera horiek ez dute zerikusirik Gaztediaren Etxeak antolatzen dituen kultura-ekintzekin, baina haiek garatzeko orduan talde kudeatzailearen babes, ikuskapena eta jarraipena dute. 2016an, atal horren barruan sartzeko moduko 56 jarduera egin ziren: 6 kontzertu (376 bertaratutako); 13 solasaldi (490 bertaratutako); 12 antzezlan (1.213 bertaratutako); 9 proiektzio (324 bertaratutako); 6 aurkezpen (419 bertaratutako); 1 bilera (25 bertaratutako); 2 ikasturte-bukaera (234 bertaratutako) eta beste jarduera batzuei dagozkien 7 lantegi (464 bertaratutako). Jarduera horietan, guztira, 3.545 lagun izan ziren.

2015ean 58 jarduera antolatu ziren (bi gehiago) eta 3.161 lagun izan ziren (ia 400 gutxiago).

***Beste jarduera batzuk**

2016an zehar beste jarduera-mota batzuk egin ziren, Iruñeko Udalak edo Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutuak zuzenean antolatuta. Udalaren Gaztedia Foroa da, gai hauei buruzko informazio-saioa: etxabeei buruzko araudia, Gaztediaren Etxeko antzerki-taldeekin egindako bilera, gazte-jardueretarako udal diru-laguntzei buruzko saio informatzailea, Mugikortasun Behatokiaren bilera, Gizakien Salerosketaren aurkako Elkarlearen prestakuntza-lantegiak edo merkataritzari buruzko hitzaldia.

BESTE ESPARRU ETA ZERBITZU BATZUK

***Zibergela**

Zibergela zerbitzuak Interneten doan sartzeko aukera ematen du, hiriko gazteek teknologia berriak erabiltzen ikas dezaten eta haietan presta daitezen. 14 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzendua da. Guztizko erabiltzaile-kopurua 9.951koa izan zen, 2015eko 9.902 baino zerbait handiagoa. Aretoko WIFia 4.752 pertsonak erabili zuten, aurreko urtean baino % 2 gehiagok. Urtean zehar, Ubuntu sistema eragile libreari buruzko beste zerbitzu bat gehitu zen zibergelan, gazteak sistema horrekin ohitzen joan daitezen.


***Iruña Gaztemaker Space**

Iruña Gaztemaker Space robotikako eta 3D modelaketako laborategia da. Laborategi horretan, baliabide gutxien dituzten gazteek taldeko proiektu teknologikoak kostu txikienarekin gauzatzeko aukera emango dien tresnak eskura ditzakete. Zerbitzuak 3D inpresioak egiteko aukera eskaintzen du, materialaren kostuaren prezioan; objektuen 3D eskanerra; robotak ekiteko kit-en mailegutza; 3D diseinuak egiteko eta robotak programatzeko azken belaunaldiko bost ordenagailu; eta aholkularitza tekniko pertsonalizatua. Irekita dago irailaren 6tik eta 312 lagunek erabili zuten urte osoan zehar.

Gaztediaren Etxeari buruzko datuak. 2016. urtea

ZERBITZUAK GUZTIRA	2015	2016	Aldakuntza	
	93.190	91.447	Erabiltzaileak	Ehunekoak
			- 1.743	- %2

Cómputo global de usuarios de la Casa de la Juventud



INFORMAZIO ZERBITZUAK	ERABILTZAILEAK		
	2015	2016	Aldakuntza
Gazteentzako Informazio Bulegoa	7.981	8.280	+% 4
Aholkularitza Juridikoa	359	477	+% 33
Asoziazionismorako Aholkularitza	248	252	+ %2
Aholkularitza psikologikoa	134	102	- %24
Ikasketa-aholkularitza	182	107	- %41
Bidaiategia	120	92	- %23
Boluntarioendako Argibide Bulegoa	640	644	+%0,6
GUZTIRA	11.679	11.970	+% 3

ESPAZIO-LAGAPENAK	ERABILTZAILEAK		
	2015	2016	Aldakuntza
Areto-lagapen iraunkorretarako eskaerak	47.005	44.329	- %6
Noizbehinkako areto-lagapenarako eskaerak	11.676	11.977	+ %3
Ikasketa-gela	817	868	+% 6
GUZTIRA	61.513	59.190	- %4

PRESTAKUNTZA-PROGRAMAZIOA	ERABILTZAILEAK		
	2015	2016	Aldakuntza
Ikastaroetako parte-hartzaileak	1.652	1.709	+ %3
Informatika-lantegi irekiak	636	679	+ %7
GUZTIRA	4.303	4.404	+ %4

GIZARTE- ETA KULTURA-EKITALDIAK	ERABILTZAILEAK		
	2015	2016	Aldakuntza
Kultur jarduerak	1.851	1.644	- %11
Erakusketak	1.427	1.065	- %25
Aisia-larunbatak	673	860	+%28
Gazte taldeen jarduerak	3.161	3.545	+%12
Beste jarduera batzuk	70	114	+%63
GUZTIRA	9.197	9.244	+%1 (%0,6)

ZIBERGELA	ERABILTZAILEAK		
	2015	2016	Aldakuntza
Zibergela	9.902	9.951	+%0,5
WIFI erabiltzaileak	4.656	4.752	+% 2
GUZTIRA	16.573	16.719	+% 1

Jarduera-mota	Kopurua		
	2015	2016	Aldakuntza
Aisialdiko eta denbora libreko ikastaroak	95	100	+% 5
Doako informatika- tailerrak	44	44	%0
Programazio Zerbitzuaren ekitaldiak	22	22	%0
Erakusketak	13	9	- %31
Aisia-larunbaten saioak	9	10	+ %11
Gazte elkarten ekitaldiak	58	56	- %3
Beste jarduera batzuk	1	7	+% 700
Jarduerak, guztira	242	248	+%2

DIRU-LAGUNTZAK ETA LAGUNTZAK KUDEATZEA

- Enpresa-sortzaile gazteendako diru-laguntzak

50.000 euroko zuzkidurarekin egin zen diru-laguntzaren deialdia. Aurkeztutako 30 eskabideetatik 28k jaso zuten laguntza, 41.085,56 euroko zenbateko osoarekin. Pertsona ekintzailearen profilari dagokionez, gazte ekintzaileen % 56,66k 25 eta 30 urte bitartean ditu, gizon- eta emakume-kopurua berdina da eta gehienak autonomoak dira (24). Guztira, 42 lanpostu sortu ziren. Edizio honetan diruz lagundutako gastu-mota aztertu zen, batez ere lokalarekin zerikusia zuten gaitan, hala nola, egokitzea, materialak eta alokairuak edo lizentzia-eskualdatzearen kontzeptua taxi-gidarien kasuan.

- Diru-laguntzak, gazteei zuzendutako jarduerak egiteagatik

Deialdiak 51.000 euro inguruko zuzkidura izan zuen. 15 eskabide aurkeztu ziren eta diruz laguntzeko 119 jarduera. Azkenik, 108 finantzatu ziren deialdi horren kontura, eta 14 ez ziren onartu. Hauek izan ziren laguntzen hartzaileak: N^a Sra. de la Paz taldea, Jóvenes para Cristo elkarte, Nafarroako Scouts Católicos taldea, SEI elkarte, Música sin Barreras, Albatro, Garaiz gazte elkarte, I Becchi gazte elkarte, Xavier denbora libreko kluba, Lantegi, Antitele denbora libreko kluba, Noray, Sierra de Alaiz kluba, Dos o Más eta Buztintxurreando Txuri.

BESTE JARDUERA ETA PROGRAMA BATZUK

* **Udako aisia-jarduerak**

- Jarduera anitzeko programa

400 plazatarako deialdia egin zen zortzi asteburutan, egun osoko programarekin (larunbata) edo asteburu osoko programarekin (larunbata eta igandea). Guztira 207 gaztek hartu zuten parte, 104 neskak eta 103 mutilek.

- Pirinioetako Zeharkaldia

3 gaztek Pirinioetako zeharkaldian parte hartzea lagundu zuen diruz Iruñeko Udalak, Anaitasuna KKAerekin elkarlanean.

*** Lehiaketak**

Udalak antolatutako gazteentzako literatura-lehiaketara 30 lan aurkeztu ziren. Horietatik 17, 14 eta 16 urte bitarteko kategoriakoak izan ziren eta 13, 17 eta 18 urtekoen kategoriakoak. Narratibari dagokionez, 78 lan aurkeztu dira. Horietatik 57, 14 eta 16 urte bitarteko kategoriakoak dira eta 21, 17 eta 18 urtekoen kategoriakoak. Sarien gastua 4.400 eurokoa da.

*** Jarduerak espetxeetan**

Espetxean eskularen 3 lantegi eman ziren Gaztediaren Etxeak kudeatuta, 60 parte-hartzaileekin, eta 6 hilabeteko musika-lantegia Mikel Barrenechea irakaslearekin.

*** Entsegu-bonuak**

Musika modernoko talde berriei laguntzeko programaren barruan, Iruñeko Udalak diru-laguntza eman zuen 285 entsegu-bonutarako, 12.483,57 euroko gastuarekin. 34 taldek eskatu zuten zerbitzua. Bi baldintza bete behar zituzten: alde batetik, taldekideen hirutik bik, gutxienez, 14 eta 30 urte bitartekoak izan behar zuten; eta bestetik, taldekideen erdiek Iruñeko auzokideak izan behar zuten.

*** Prebentziozko esku-hartzearen proiektua Sanferminetarako**

Hegoakenez bidez, jaien inguruko droga-kontsumoari lotutako arriskuak eta kalteak murrizteari buruzko esku-hartze pilotua egin zen. Jarduketa Errekoleten plazan egingo da, Herri Sanferminak gunean, uztailearen 11n, 12an eta 13an, gaueko 23:00 eta 03:00 artean. 220 lagun izan ziren informazio-gunean eta 44k analisia egin zuten (guztira 57 egin ziren, batzuek bi aldiz egin zutelako). Halaber, abian jarri zen uztailearen 6tik 13ra, gaueko 10etatik goizeko 6etara bitartean, alkohol- eta droga-kontsumoarekin zerikusia duten arriskuen prebentzioan eta murrizketan espezializatutako telefonozko arreta-zerbitzua.

*** Gazte-foroa eta sare sozialak**

Apirilaren 20rako gazteentzako parte-hartze foroa antolatu zen eta 23 lagun bertaratu ziren. Lehengo Gaztediaren Mahaiarekin alderatuta, ordezkaritza-izaera zuenarekin, egin ziren aldaketak azaldu ziren.

Apirilaren 27rako arte eszenikoetako gazte sortzaileen sarea eratzeke lehen bilerarako deialdia egin zen, eta 6 talde desberdinetako 8 gazte bertaratu ziren.

ADINEKO PERTSONAK

Udalak 'Adineko Pertsonentzako Jarduketa Programa' prestatu zuen Iruñea Adineko Pertsonentzako Hiri Adiskidetsu bihurtzeko Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) Munduko Sarearen barruan. Hauek dira plan honen helburuak: adineko pertsonen aniztasuna aitortzea, adin guztietako pertsonen partekatutako inklusio-kultura sustatzea, haien erabakiak eta bizimodu-aukerak errespetatzea eta zahartze aktiboarekin zerikusia duten premiei eta lehentasunei malgutasunez erantzutea.

OMEk sustatutako proiektuak zahartze aktibo eta osasuntsua sustatu eta bideratuko duten ingurune eta zerbitzuak sortzea du xede. Zahartze aktiboa sustatzeko interesa duten udal guztiei zuzenduta dago proiektua, haien inguruneak eta zerbitzuak hobetzeko eta ikuspegi hori udal-plangintzan txertatzeko.

Udal-programak modu integralean jorratzen ditu adineko pertsonen egunerokotasunari eragiten dioten alderdiak, haien parte-hartzea sustatuz eta, aldi berean, Udala hobetzeko prozesuan haien premiak, ikuspegiak eta iritziak kontuan hartuz.

'Adineko Pertsonen Jarduketa Programak' hamahiru jardunbide ditu, bost fasetan bilduta.

Lehen fasea, 2017 arterainokoa, Iruñeko adineko pertsonen egungo egoeraren aurrediagnostikoarena da. Horretarako, besteak beste, demografiari, pobrezia-arriskuari, mendekotasun-egoerari edo herritarren partaidetzari buruzko datuak jasotzen dituzten adierazleak ari dira lantzen. Adineko pertsonentzako udal-baliabide eta -zerbitzuen mapa integral bat ere egin da, aire zabaleko guneak, eraikinak, garraioa, etxebizitza, errespetua eta gizarteratzea, parte-hartze soziala, komunikazioa eta informazioa, lana eta herritarren parte-hartzea eta gizarte-zerbitzuak eta osasuna hartzen dituenak.

Lehen fasea Adineko Pertsonen Kontseiluari bidaliko zaion txostenarekin amaituko da, gizarteratzeko eta kontrastatzeko eta jendeari ezagutzera emateko. Gainerako etapak hurrengo urtetik aurrera beteko dira.